ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA.

1. Berdinka zbizue lehengo eta oraiko langilea
2. Berdinka ere lehengo eta oraiko lana.
3. Lana errextua dea orai? Zertako?

(II)

NAUSI ETA LANGILE III

Tresnaz ari ez denak ez dezake luzaz ihardok; nahi eta ez, ukho egin behar du. Tresnarik hoberenak nausi azkarrenen eskuan direlakotz, langilea behar da, nahi eta ez, nausi direlakoen eskuetarat erori; heien muthil jarri, on bazaio eta ez bazaio. Eskulangilea nehondik ez dakioke tresna-langileari jarraik.

Gero, langile multzo bat bere azpiko duen buruzagiak lan gehienak eskuratzen ditu, banazkakoentzat guti utziz edo bat ere ez. Hortakotz, nehon, nehor kasik ez duzu gehiago *bere gain* ari den langilerik. Dela zurgin, dela hargin, dela tindatzale[21], zoin ere langileren beharra baitukezu, hamarretarik bederatzietan debalde dukezu langilearengana joaitea, buruz buru[22]. Zoazi nausiarengana. Haren baia gabe ez zautzu langilea jinen[23].

Ez du erran nahi hau gaizki dela; batek ala bertzeak huntan bere ona kausitzen dukete. Eta azkenean, on edo ez on, ezinbertzea[24] da.

Horrela beraz, lan guzia nausi-langilez doanaz geroz, ageri da nausi-langileek elgar ahalaz lagundu behar luketenean, elgarri harrika ari badire; elgarren behar gorria, eta elgar begien aintzin ezin ikhus; ezin jasan elgar; hots, ageri da deus onik ez dezaketela igurik[25].

Alta bada[26] hortaratuak gira; eta gero-ta gaizkiago joaki, bide hortaz. Erran duguna, Eskual Herrian gutienik; bainan já hemen ere ba guti edo aski; eta bertzetan itsuski.

Eta bertzetako gaitz gutiz gehienak azkenean gutaratzen; eta gehiago dena, lakhetzen[27] gurekin. Jinkoak begira bagintza bederen huntarik! Bertze aldian ikhusiko dugu, zeri ginauzkeen bertzeen gainera hori sar balakigu.

(1901)

~~Chan ms Urruty → (1928)~~

34. UKAN Conj. transitive: Cplt direct pr. personnel: Gu = nous
Suppositif éventuel 2ème forme.

Zuk ukan bagindezazu = si vous nous aviez
Harek -"- bagindeza (bagintza) = s'il nous avait
Zuek -"- bagindezazue = si vous nous aviez
Heiek -"- bagindezate = s'ils nous avaient
C. Perif. Ikus bagindezazu = si vous nous voyiez

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. ez dezake 32. ez dakioke
33. baitukezu 34. begira bagintza
35. ginauzkeen 36. balakigu

31. UKAN. Potentiel Présent Obj. Sing.

Nik ukan dezaket = je peux l'avoir
Hik -"- dezakek/n = tu peux l'avoir
Zuk -"- dezakezu = vous pouvez l'avoir
Harek -"- dezake = il peut l'avoir
Guk -"- dezakegu = nous pouvons l'avoir
Zuek -"- dezakezue = vous pouvez l'avoir
Heiek -"- dezakete = ils peuvent l'avoir

32. IZAN Régime Indirect Potentiel présent.

(Hura) izan daiteke = il peut être
Hura (lui) izan dakidake (à moi) = il peut m'être
-"- -"- dakizuke (à vous) = il peut vous être
-"- -"- dakioke (à lui) = il peut lui être
-"- -"- dakiguke (à nous) = il peut nous être
-"- -"- dakizueke (à vous) = il peut vous être
-"- -"- dakieke (à eux) = il peut leur être

33. UKAN. Potentiel Présent O. Sing. (Radical U)

Nik duket = je peux l'avoir
Hik dukek/n = tu peux l'avoir
Zuk dukezu = vous pouvez l'avoir
Harek duke = il peut l'avoir
Guk dukegu = nous pouvons l'avoir
Zuek dukezue = vous pouvez l'avoir
Heiek dukete = ils peuvent l'avoir